

# Inbertsio-erabakien inguruko intzidentzia kaltegarri buruzko politika

## 1. SARRERA

Kutxabank **negozio-eredu jasangarri baterantz ari da pausoak ematen, eta ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko inpaktu positiboa maximizatuko duten inbertsioetarantz ari da berbideratzen kapital-fluxuak**. Horretarako, ekonomiarekin eta finantzekin loturiko alderdiez gain, **IGG dimentsioak** (ingurumen, gizarte eta gobernu onaren dimentsioak) **hartzen ditu kontuan** Kutxabanke **bezeroen inbertsio-erabakien prozesuetan**. Hala, inbertsio-arrisku eta -aukeren ebaluazio osatuagoa egiten dezake, hazkunde jasangarri eta inklusiboko eredu baterantz trantsizioa bultzatzeko helburuarekin.

IGG faktore deitzen zaie inbertsio baten errendimendua ebaluatzeko orduan garrantzitsuak diren irizpide ez-finantzarioei. Inbertsio horien bidez gizartean eragin positibo bat izanez, epe luzeko errentagarritasuna lortzea da helburua. Hauek dira IGG faktoreak:

- Ingurumen-faktoreak: ingurumenaren eta sistema naturalen kalitatearekin eta funtzionamenduarekin loturiko faktoreak (besteak beste, berotegi-efektuko gas-emisioak, klima-aldaketa, poluzioa eta baliabideen kudeaketa).
- Faktore sozialak: pertsona eta komunitateen eskubideekin, ongizatearekin eta interesekin loturiko faktoreak (besteak beste, giza eskubideak, lan-baldintzak eta berdintasuna).
- Gobernantza: enpresen gobernu onarekin eta ikuskaritzarekin loturiko faktoreak dira (praktika egokiak, gardentasuna, ustelkeriaren aurkako neurriak eta informazio pribilegiatuaren kudeaketa).

## 2. TESTUINGURUA

Finantza-zerbitzuen sektoreko jasagarritasunari buruzko informazioaren dibulgazioari buruzko 2019ko azaroaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/2088 Erregelamenduko 4. artikulua araber, intzidentzia kaltegarri horien kasuan behar besteko arretarekin jokatzeko politikari buruzko adierazpena jaso beharko da zerbitzu horien webguneetan, baldin eta intzidentzia horiek kontuan hartzen badira.

Adierazpen horretan, honako alderdi hauek jaso beharko dira, gutxienez:

- a) jasagarritasunaren inguruko intzidentzia kaltegarri nagusiei buruzko lehentasunak eta horien inguruko adierazle nagusiak identifikatzeko eta zehazteko politikari buruzko informazioa
- b) jasagarritasunaren inguruko intzidentzia kaltegarri nagusien eta horiei buruz martxan jarritako ekintza garrantzitsu eta programatu ororen deskribapena

c) inplikazio-politiken sintesi laburrak

d) enpresa-jokabide arduratsuak eta arrazoizko arretari buruz aitortutako nazioarteko arauak errespetatzeari eta alor horietan egindako txostenei buruzko erreferentziak, eta, beharrezkoa bada, Parisko Hitzarmeneko epe luzeko helburuekiko bat-etortze mailari buruzkoak.

Aipaturiko erregelamendua garatzen duten arau teknikoak oraindik ere behin-betikoak ez direnez eta alor horretan eskura dagoen informazioa oraindik ere mugatua denez, erantzukizunpeko adierazpen horren edukia adierazitako printzipioen interpretazio onenaren eta aukera praktikoen arabera izango da.

### **INTZIDENTZIA KALTEGARRI NAGUSIEI BURUZKO LEHENTASUNAK IDENTIFIKATZEKO ETA ZEHAZTEKO POLITIKEI BURUZKO INFORMAZIOA**

Intzidentzia kaltegarrien bitartez, egindako inbertsioek jasangarritasunean, ingurumenean, gizartean eta gobernantzan dituzten eragin negatiboen berri izan dezakegu.

Kutxabankek Zorroen Hautazko Kudeaketa zerbitzua eta Aholkularitza Ez-independentearen zerbitzua eskaintzen die bere bezeroei. Bi kasuetan, inbertsio-erabakiek jasangarritasunarekin loturiko faktoreetan dituzten intzidentzia kaltegarrien inpaktu negatiboa kontuan hartzeko prozesuak zehaztuko dira.

Kutxabankek eskaintzen duen aholkularitza-zerbitzu ez-independentea Kutxabank Kudeaketak sortutako inbertsio-funtsetan oinarritzen da. Hala, inbertsio-funtsei buruz argitaratutako informazioan jasotzen da intzidentzia kaltegarrien kudeaketari buruzko informazioa. Kutxabank Kudeaketak badu arrazoizko arreta-politikei buruzko adierazpen bat, inbertsio-erabakiek jasangarritasun-faktoreetan izan ditzaketen intzidentzia kaltegarri nagusiei buruzkoa, inbertitzaile orok kontuan izan dezan. Adierazpen hori argitaratuta eta eguneratuta dago Kutxabanken webgunean.

Zorroen Hautazko Kudeaketa zerbitzuari dagokionez, Kudeaketa Delegatuko Zorroen Inbertsio Batzordearen bitartez prestatzen eta gauzatzen ditu Kutxabankek bere bezeroen inbertsioak. Kutxabank Kudeaketak erakundearen aholkulari gisa hartzen du parte inbertsioei buruzko erabakietan. Batzorde horretan, zorroetan definitutako arrisku-profilentzat ustez onenak diren inbertsio-erabakiak hartzen dira. Hala, aldian behin, Kutxabank Kudeaketak intzidentzia kaltegarrien azterketari buruzko informazio espezifikoa ematen dio banketxeari.

Beste kudeatzaile batzuen inbertsio-funtsei dagokienez, Kutxabankek segimendu-prozesu bat egingo du, Morningstar globoen informazio-sisteman oinarrituta.

### **JASANGARRITASUNAREN ARLOKO ETA, EGOKI BADA, MARTXAN JARRITAKO EDOZEIN EKINTZAREN INTZIDENTZIA KALTEGARRI NAGUSIEN DESKRIBAPENA**

Segidan, inbertsioek jasangarritasunaren gainean dituzten ondorioei segimendua egiteko aplikatzen diren jasangarritasun-adierazle nagusiak zehazten dira. Hori egiteko, sektore publikoak, pribatuak eta inbertsio kolektiboko erakundeak desberdindu dira.

Argitaratutako informazioak duen kalitatearen arabera aukeratu dira adierazle horiek, eta kalitatezko informazio berria argitaratzen den neurrian edo 2019/2088 Erregelamendua garatzen duten arauen behin-betiko bertsioetan adierazten diren neurrian, beste batzuk ere kontuan hartu behar diren baloratuko da.

Igorle pribatuak:

- **Karbono-aztarnaren intentsitatea:** berotegi-efektuko gas-emisioek konpainiaren salmenta-bolumenekiko duten aztarna neurtzen du.
- **Denbora galarazten duten gorabeherak:** laneko denbora galarazten duten lan-arloko gorabeherak monitorizatzen dira; beraz, laneko arriskuen prebentziorako neurrien inplementazio-mailari buruzko hurbilketa moduko bat dira.
- **Genero-ordezkaritza plantillan:** genero bakoitzak konpainian duen ordezkaritza maila aztertzen da. Kalitatezko informazioa jasotzen den neurrian, erakunde zuzendaritza-organoetako genero-ordezkaritzarekin osatuko da informazio hori.  
**Administrazio Kontseiluaren tamaina egokia:** gobernantza egokia neurtzea da helburua, konpainia bakoitzaren tamainarekiko eta konplexutasun mailarekiko gobernu-organoek duten proportzionaltasunari segimendua eginez.  
**Kontseilari independenteen kopurua:** konpainia bateko gobernu-organoek duten independentzia eta profesionaltasun maila islatzen du, erabakiak hartzeko orduan sor daitezkeen interes-gatazkak murrizteko helburuarekin.

Igorle publikoak (herrialdeak)

- **Giza garapenaren indizea (NBE):** herrialde batek bere dimentsio sozial eta ekonomikoen arabera duen garapen maila neurtzen duen tresna da. Besteak beste, pertsonen osasuna, hezkuntza-maila eta bizi-maila hartzen dira kontuan.
- **Gobernantza-indizeak (Munduko Bankua):** ekonomia gidatzen duten erakundeen gobernu-gaitasunari, herritarrekiko errespetuari eta egoerari buruzko informazioa ematen dute.

Inbertsio kolektiboko erakundeak:

- **Morningstar globoak:** finantza ikuspegitik zorro batean garrantzitsuak izan daitezkeen ingurumen, gizarte eta gobernantza arloko arriskuak neurtzen dituen jasangarritasun-kalifikazioa da, beti ere, konparagarriak diren beste zorro batzuekin alderatuta.

### 3. INPLIKAZIO-POLITIKA

Gaur egun, Kutxabankek ez du eskaintzen inbertsio-zerbitzurik errenta aldakorreko aktiboaren gainean, baizik eta inbertsio-funtsetan gainean. Beraz, ezinezkoa da akziodunek inbertsio-funtsetan dituzten posizioekin lotuta dituzten eskubideei buruzko ariketa zuzenik egitea.

**4. ENPRESA-JOKABIDE ARDURATSUAK ETA ARRAZOIZKO ARRETARI BURUZ  
AITORTUTAKO NAZIOARTEKO ARAUAK ERRESPECTATZEARI ETA ALOR HORIETAN  
EGINDAKO TXOSTENEI BURUZKO ERREFERENTZIAK ETA, BEHARREZKOA BADA,  
PARISKO HITZARMENEN EPE LUZEKO HELBURUEKIKO BAT-ETORTZE MAILARI  
BURUZKOAK**

Kutxabank Munduko Hitzarmenaren “signatory bazkidea” da sortu zenez geroztik, Euskadiko Aurrezki Kutxen ibilbideari jarraiki. Nazio Batuen Munduko Hitzarmenaren bitartez, dei egiten zaie enpresa eta erakundeei estrategiak eta eragiketak egiteko orduan, giza eskubideen, lanaren, ingurumenaren eta ustelkeriaren aurkako borrokaren arloko hamar printzipio unibertsal kontuan har ditzaten. Kutxabankek bere gain hartua du Garapen Jasangarrirako Helburuak sektore pribatuan sustatzeko NBEk egindako mandatua.

NBK25en sinatzaile den aldetik, Kutxabankek paper garrantzitsua hartua du bere gain emisio gutxiko ekonomia bateranzko trantsizioan. Klima-aldaketaren aurkako borroka funtsezko helburu bilakatu da gure gizartearentzat, ondorio ekonomiko nahiz sozialak baititu sistemaren eragile guztietan. Ondorioz, beharrezkoa da eredu ekonomikoa, produktiboa eta soziala eraldatzea, eta arriskuak eta aukerak berdefinitzea. Kutxabank bere negozio-ereduan txertatuz joango da aldaketa horiek guztiak.

Kutxabank Kudeaketa NBEren Inbertsio Sozialki Arduratsuen Printzipioei atxikita dago, eta, beraz, inbertsio sozialki arduratsua da erakundearen zutabe nagusietako bat.